

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

4887

428/2020 EBAZPENA, urriaren 27koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendariarena, zeinaren bidez Victor Bustamante Madariaga jauna Errekurtso eta Prozesu Asistentzialen Analisisiko Atal Sanitarioko buru kargutik kendu egin den, Asistentzia Sanitarioko zuzendaritzan (Zuzendaritza Nagusian), berak hala eskatuta.

811/2019 Ebazpenaren bidez, azaroaren 18koa, Victor Bustamante Madariaga jauna izendatu zuten Errekurtso eta Prozesu Asistentzialen Analisisiko Atal Sanitarioko buru Asistentzia Sanitarioko zuzendaritzan (Zuzendaritza Nagusian) (2019ko abenduaren 3ko EHAA 230. zk.).

Ekainaren 26ko 8/1997 Legea, azaroaren 11ko 255/1997 Dekretua eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenak ikusita, Giza Baliabideen zuzendaritza honek

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– Victor Bustamante Madariaga jauna Errekurtso eta Prozesu Asistentzialen Analisisiko Atal Sanitarioko buru kargutik kentzea Asistentzia Sanitarioko zuzendaritzan (Zuzendaritza Nagusian), berak hala eskatuta; eta eskerrak ematea egindako lanagatik.

Bigarrena.– Ebazpen honek 2020ko urriaren 27ko lanaldia bukatzean izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Ebazpen hau EHAAan argitaratzea eta haren berri ematea interesdunari eta Bilbao-Basurtoko Erakunde Sanitario Integratuari.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza zuzendari nagusiari, hilabeteko epean, Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko urriaren 27a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendaria,
MARÍA PILAR URIARTE BRIZUELA.